POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA
DEBATE SOBRE POLÍTICA GENERAL

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

2017-09-21 Eusko Legebiltzarra
Parlamento Vasco 21-09-2017

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA
DEBATE SOBRE POLÍTICA GENERAL

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

2017-09-21 Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco 21-09-2017

Legebiltzarburu Anderea,

Legebiltzarkideok, Sailburuok, Jaun-Andreok, Agur t'erdi!

Orain urtebete eskas, 2016ko irailaren 25ean, euskal herritarren artetik berriz ere erakutsi zuten Autonomia Erkidegoaren hauteskundeetan Euskadiren aniztasun eta askotarikotasun politikoa.

Eusko Jaurlaritza berriak, konbentzimendutik zein beharrizanetik, elkarrizketa eta akordioa bihurtu ditu bere gobernu-eredu.

Ez da gauza berria; izan ere, hamarkadatan eraikiz joan da Euskadi, erakundeen, alderdi politikoen eta gizartearen elkarlanarekin eta parte-hartzearekin.

Hori da gure Herri-eredua.

Une oso berezia bizi dugu, eta oinarrizko hiru printzipio: errealismoa, egonkortasuna eta adostasuna uztartzen asmatzeko gai garela erakutsi behar dugu:

- Errealismo soziala, oinak lurrean ditugula erakusteko. Errealismoak esan nahi du euskal herritarrek eguneroko bizitzan dituzten arazo eta beharrizanen jakitun izatea.
- Egonkortasun politikoa, hazkunde ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko.
- Erakunde-Adostasuna, kooperazioa eta kontzertazioa gure erabakien norabidea mantentzeko.

Ikusmolde horretatik ekingo diot Legegintzaldi honetako lehenengo Eztabaida honi, nazioarteko ingurunea eta Euskadiko egoera gogoan hartuta. Diskurtso osoa zuen eskura izango duzue, gaur laburpen bat aurkeztuko dut.

Hasteko, nazioarteko ingurunearen ikuspegia.

Krisi ekonomikoak azken hamarkadako bizitza politiko, ekonomiko eta soziala baldintzatu du.

Hazkunde-ziklo berri batean gaude orain; hala ere, sinetsita nago hamarkada honetan guztian lan egin beharko dugunaz, krisiaren ondorioak gaindituko baditugu.

Nazioarteko agendako lau gai aipatuko ditut:

Lehenengoa. Datorren bi urteak funtsezkoa izango dira Europaren etorkizunerako, Brexiterako negoziazio-aldiaren ondoren. Europak bere etorkizuna diseinatu behar du eta Jean-Claude Juncker presidentea eta Europar beste agintari batzuei aurreratu nien bezala, prozesu horretan parte hartuko dugu. Gure apustua da Europa politiko eta soziala areagotzea, ekonomikoaz gain.

Bigarrena. Estatu Batuetako presidente berriak aldaketa ekarri die Estatu Batuen politika ekonomikoari eta kanpo-politikari. Funtsezko gai bat azpimarratuko dut: klima-aldaketari buruzko COP21 akordioak bertan behera utzi izana. Gure politikan, aldiz, isurketak gutxitu eta ingurumen-eragina arintzearen aldeko apustuari eutsiko diogu.

Hirugarrena. Kezkabide ditugu munduko segurtasuna, tentsioak gora egitea eta nazioarteko terrorismoa. Nazio Batuen Erakundeak lidergoa bereganatu behar du egoera hau gainditzeko.

Laugarrena. Krisi humanitario larria bizi du Europak, errefuxiatuak datozelako gerratik eta pobreziatik ihesi. Errefuxiatuak hartzea gure konpromisoa, balio humanistiko eta elkartasunezkoekin bat etorrita.

Jarrera argia dugu gai horien aurrean, Europar Batasunaren esparruan beti ere; eta hala jakinarazi nien Batzordeko presidenteari eta beste agintari batzuei martxoan izandako elkarraldian.

Ondoren, 2017ko Euskadiri buruzko ikuspegia azalduko dut.

Agerikoa aipatuz hasiko naiz: egoera ekonomiko eta sozialak hobera egin du; azken urteotako ahalegina lagungarri zaigu etorkizunari jarrera baikorragoarekin begiratzeko.

Urte gogorrak igaro ditugu, gizarte osoari eragin diotenak. Urte gogorrak familia eta enpresentzat, bai eta erakundeentzat ere.

Aurten, hazkundea egonkortu da eta pausoz pausoko enplegu-sorkuntza mantendu.

Errealista naiz. Enplegu gehiago sortu behar dugu, kalitate hobekoa.

Errealista naiz. Krisi honek ezberdintasun- eta pobrezia-poltsa iraunkorrak utzi dizkigu, eta haiei aurre egiten jarraitu behar dugu.

Errealista naiz. Jakitun nago enpresek egokitzeko ahaleginean dihardutela eta aukera berriak sortzen saiatzen direla.

Badakigu zailtasunak daudena. Jaurlaritzak jarraitu egingo du arreta ematen zailtasunak dituzten enpresen egoera bereziari.

Krisiak erantzukizun-jarrera azaleratu du, elkartasun-jarrera, bai eta etorkizuna bermatzeko behar diren eraldaketei ekiteko gaitasuna ere.

Bizi izan dugun krisi sakonari aurre egiteko, inoiz ez bezalako erabakimena, batasuna eta eraginkortasuna erakutsi du euskal gizarteak.

Muga eta zailtasun guztiak ezagutzen ditugu, baina Euskadi egonkortasun politiko, ekonomiko eta sozial handiagoarekin ari da krisitik ateratzen.

Horretan guztian oinarrituta, abiada berri baten garaian gaude.

Etorkizunean inbertitzeko garaia. Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta industrialean inbertitzeko, azpiegituren berrikuntzan eta gizartearen digitalizazioan.

Bultzada politiko berri baterako garaia ere bada.

Kataluniako errealitatetik gertu, akats larria iruditzen zait era eraikitzailean heldu ez izana Estatuaren lurralde-gatazkari, haren ereduaren eraldaketari. Ezin da ulertu Estatuaren geldotasuna, geldokeria hobe, ekimen politikorik eza.

Beti da hitz egiteko garaia, eta beti dago elkarrizketarako astia. Nahitaezkoa da Estatuak errotik alda dezala bere jarrera, elkarrizketa politikora ireki dadila legezko irtenbide itundu bat lortze aldera, konponbide posible bakarra da eta.

Euskadin, elkarrizketaren eta akordioaren aldekoak garela erakutsi dugu. Inposizioa, itxikeria eta birzentralizazioa nagusitu diren aurreko Espainiako legegintzaldiaren ondoren, agertoki berri bat ireki da. Aldebikotasunak bere esparruaren zati bat berreskuratu du.

Aurrera egin dugu akordioaren bidetik, baina hurrengo hilabeteetan aurre egin beharko diegun funtsezko gaiekin aldebiko agendak irekita darrai.

Esta es nuestra visión de la situación.

Queremos sumar, colaborar para que Euskadi siga creciendo; cuente con mayores capacidades y recursos; sea más abierta y reconocida en el mundo.

Nuestro compromiso es que, partiendo de la legitimidad de la democracia representativa, la sociedad adquiera un mayor protagonismo e implicación. Crecer. Construir Nación desde el respeto, la responsabilidad y el pacto.

Sobre esta base planteo mi intervención.

PRESENTO LOS CUATRO PILARES QUE ESTRUCTURAN EL PROGRAMA DE GOBIERNO:

1. Desarrollo humano e integración social;
2. Empleo y Reactivación Económica;
3. Convivencia y Derechos Humanos; y
4. Más y Mejor Autogobierno.

Son nuestros pilares en un contexto de profundas transformaciones. Hemos transitado por una grave crisis económica que ha afectado al bienestar de la ciudadanía y la cohesión social.

Vivimos un tiempo de cambio que afecta a todas las esferas de las políticas públicas.

No podemos desdeñar todo lo creado y construido hasta el momento, tampoco instalarnos en una acomodación acrítica. La autocomplacencia es el peor criterio de orientación.

Es cierto que, en lo económico-social, determinadas empresas en el sector industrial están teniendo graves dificultades para mantener la actividad.

Es cierto que el crecimiento no está acompañado por la creación de empleo de calidad en la medida que desearíamos.

Es cierto que el envejecimiento de la población está incidiendo en la sostenibilidad futura de los servicios esenciales de salud y protección social.

Es cierto que el avance logrado en la equidad en la educación tiene que venir acompañado por una decidida apuesta por la excelencia.

Es cierto que la internacionalización de Euskadi va a requerir un mayor esfuerzo compartido por todas las instituciones, empresas, universidades y entidades.

Es cierto que debemos impulsar más la innovación en las pequeñas y medianas empresas, afrontar con decisión la transformación digital de la economía y la industria.

Nos corresponde responder a estos retos que representan el futuro de Euskadi y simbolizan el bien común. Lograrlo es una responsabilidad compartida entre las instituciones y la sociedad.

Trabajar juntos por el bien común es el significado de “auzolana”, el espíritu de nuestro País.

NUESTRO MODELO ES EL DESARROLLO HUMANO SOSTENIBLE.

Los Países más competitivos son los que disponen de mayor nivel de desarrollo e igualdad social. No hay estado avanzado de bienestar sin una economía fuerte que lo sustente.

Destinamos dos tercios de nuestro presupuesto operativo a las políticas sociales. Es la base de nuestro ideario.

Construir una sociedad vasca más justa implica ser más competitivos.

Estamos ejecutando una política económica eficaz, capaz de favorecer la viabilidad de las empresas y generar empleo. Capaz de transformar la riqueza en políticas públicas que garanticen los servicios esenciales, modernicen el País y nos permitan invertir en los nuevos sectores económicos de futuro.

Nuestro modelo es social, prima garantizar el Desarrollo Humano y la cohesión.

El primer objetivo de las políticas públicas es garantizar la dignidad de las personas y sus condiciones esenciales de vida.

La tasa de pobreza en Euskadi es la más baja del Estado pero hemos asumido el objetivo de reducirla un 20% esta legislatura.

Nuestro compromiso es mejorar la gestión y la eficacia para atender mejor a las personas que más lo necesitan, preservando el sistema vasco de protección social.

Nuestro modelo fomenta el Crecimiento Sostenible y la creación de empleo.

Vamos a primar la competitividad reforzando las actuaciones del “Plan 4 I”: Inversión, Innovación, Internacionalización e Industria.

Avanzar en un crecimiento sostenible significa: lograr “más y mejor empleo”, reducir la tasa de paro por debajo del 10% y contribuir a ofrecer una experiencia laboral a 20.000 jóvenes.

Hemos aprobado el nuevo Plan de industrialización. Nuestro objetivo es que la industria alcance el 25% del Producto Interior Bruto.

La inversión público-privada en Innovación es clave de desarrollo futuro y hemos comprometido un crecimiento anual del 5% del presupuesto público en Innovación.

Nuestro modelo es social, fomenta el crecimiento.

Nuestro modelo es transparente y se asienta en la colaboración.

Se ha facilitado a la ciudadanía el acceso a los principales proyectos e iniciativas del Gobierno a través de Irekia.

Hemos aprobado y publicado:

- -Los 15 Objetivos de País.
- -Programa de Gobierno;
- -Planificación Estratégica;

- -Programa Legislativo;
- -Nuevo Programa Marco de Reactivación económica y Empleo 2020; y
- -Presupuestos 2017 y Directrices económicas 2018.

Este modelo de gestión se alinea con la Estrategia 2020 de la Unión Europea. También con la Agenda de Naciones Unidas que comprende los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible clasificados en cinco ámbitos: Personas, Prosperidad, Planeta, Paz y Partenariado.

Los 15 Planes Estratégicos del Gobierno se integran en este modelo.

Hoy, 10 Planes están en vigor y 5 se aprobarán este año: Convivencia y Derechos Humanos; Gobernanza e Innovación Pública; Empleo; Euskera; y Plan Estratégico de Turismo, Comercio y Consumo. La Estrategia se ha contrastado con los agentes implicados en todos los casos.

Hoy, 165 de los 175 compromisos del Programa de Gobierno cuentan con actuaciones en desarrollo; esto es, más del 90%. Las iniciativas en marcha son 539 sobre 655, más del 80%.

El Programa Legislativo del Gobierno contempla 28 proyectos de Ley.

Hemos aprobado cuatro: Puertos y Transporte Marítimo; Sostenibilidad energética de la Administración pública; Ley contra el dopaje; y Patrimonio cultural.

El objetivo es aprobar, este año, el proyecto de Ley de Acceso y Ejercicio de las Profesiones del Deporte.

A esto se añade la tramitación, propuesta por los grupos que sustentan al Gobierno, de tres Proposiciones de Ley: Formación Profesional; Transparencia y Participación ciudadana; y Organización y funcionamiento del sector público.

Además, este primer semestre, el Parlamento ha aprobado las siguientes Leyes:

-Modificación de la Ley 4/2014 de creación del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos.

-Presupuestos Generales de la Comunidad.

-Texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias.

El grado de cumplimiento del Programa Legislativo del Gobierno se encuentra por encima de los objetivos fijados para este primer año.

Nuestro modelo compromete el rigor en la gestión pública.

El Gobierno trabaja con el Marco Económico y Presupuestario 2017-2020 como herramienta para garantizar los principios esenciales de la buena gobernanza.

El escenario macroeconómico es de crecimiento moderado en la economía mundial, con factores de riesgo en Europa, como pueden ser el impacto negativo del Brexit, procesos electorales, tipos de interés, tipo de cambio o precio del petróleo. En Euskadi, vamos a pasar de incrementos del PIB en el entorno del 3% a incrementos del 2.2% hasta el año 2020.

El escenario, en nuestro caso, está siendo positivo por cuatro razones:

-es un crecimiento alto respecto al entorno;

-posibilita una creación de empleo sostenida, entre el 1.9% de este año y el 1.3% de 2020, año en que la tasa de paro se situaría por debajo del 10%;

-el crecimiento será compatible con un incremento de la productividad cercano al 1%; y

-el modelo de crecimiento será equilibrado, con pujanza de la industria y los servicios.

En cualquier caso, el escenario presupuestario a 2020 se va a ver condicionado por la tendencia del gasto y los objetivos incluidos en el Programa de Gobierno, teniendo en cuenta también posibles procesos de desaceleración y estabilización.

Cabe destacar algunos objetivos de Programa que tienen reflejo presupuestario:

- -compromiso general de mantener las políticas sociales y la calidad de los servicios, recuérdese que Salud y Educación representan el 60% del gasto;
- -elevar un 5% anual los gastos de Innovación;
- -proporcionar una primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes;
- -envejecimiento de la población y mayor demanda del servicio de salud;
- -renovación de infraestructuras en Educación y Sanidad;
- -mantenimiento de la RGI y derecho subjetivo de vivienda; y
- -políticas de apoyo a las familias.

Es indudable que el Marco Económico y Presupuestario contempla un incremento del gasto.

Este Marco se ve, además, afectado por el efecto de la consolidación fiscal:

-el déficit se reducirá al 0.4% el año 2018 y será cero en 2020; y además

-la regla europea de gasto limita la disponibilidad presupuestaria en términos de inversión.

En definitiva, la gestión racional, rigurosa y ajustada de los recursos públicos va a seguir siendo imprescindible durante todo el período.

Esta condición necesaria podría no ser suficiente porque la sostenibilidad de las políticas públicas exige garantizar la suficiencia financiera en un escenario de déficit cero, en el que los gastos de cada ejercicio no podrán superar a los ingresos.

El Marco Económico y Presupuestario 2020 define el modelo de gestión del Gobierno y orienta la necesidad de avanzar desde el acuerdo.

Nuestro modelo de Desarrollo Humano Sostenible es social y económico; es transparente y se asienta en la colaboración.

Nuestro modelo prima el acuerdo.

Gizarteak akordioak eskatzen eta estimatzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren eredua akordioari lehentasuna ematea da.

Garrantzi berezia duen bat azpimarratuko dut: Espainiako Gobernuarekin Kupoari eta Itun Ekonomikoa eguneratzeari buruzko Akordioa. Mugarria izan da.

Uztailean, hauek sinatu zituen Batzorde Mistoak: alde batetik, Itun Ekonomikoa eguneratzea; beste alde batetik, 2007tik 2021era arteko kupoari buruzko Akordioa lortu genuen. Akordio horri esker bermatuta dago 15 urteko “bake finantzarioa.”

Akordio honen garratzi ekonomikoaz gain, esangura politikoa azpimarratu nahi dut; erreferentea da Euskadi Estatuarekiko harreman-estatus berria planteatzen ari den honetan.

Aldebiko harreman-bidea, elkarren errespetuan eta ezagutzan oinarritua, euskal autogobernuaren giltzarria da.

Itunaren sistemak, batean biltzen ditu esanahi historikoa eta eraginkortasun praktikoa. Foru-abolizioaren ondoren, gure jatorrizko burujabetzaren zati batekin lotzen gaitu; eta sistema itundu erabilgarri eta bermatzaile gisa ere mantendu da.

Kontzertu Ekonomikoa gure Autogobernuaren giltzarria da.

Oinarri sendoa eskaintzen du Estatuarekiko harreman-eredu berria eraikitzeko, bai eta politikaren eta eskumenen eremuan ere. Sistema horrek barne hartzen ditu:

-Lehenengoa: Euskadiren eta Estatuaren arteko Itun-izaera. Bai Kontzertuak bai Nafarroako Itunak lotura dute gure foru eta eskubide historikoekin; bere burua gobernatzeko ahalmena aitortzen die euskal lurraldeei. Aldebikoa da, hau da, ezin da alde bakarretik aldatu.

-Bigarrena: Legezko izaera du hala Estatuan nola Europan. Itunak, zerga- eta finantza-alorrean, harreman-eredu ia konfederala dakar.

-Hirugarrena: Elkartasun- eta koordinazio-izaera. Kontzertu-sistemak harreman berezitua ezartzen du Euskadi eta Estatuaren artean. Harreman berezitu horrek ez dakar pribilegiorik, Euskadik aldebakarreko arriskua bereganatu zuelako.

-Laugarrena: Aldebiko izaera eta elkarren bermeen sistema. Itunak bide edo mekanismo paritarioak ezarri ditu gatazkak konpontzeko. Tresna eraginkorrak dira eta erdietsitako Itunaren bermerako aldebiko sistema eskaintzen dute.

Ituna, Legezkotasuna, Elkartasuna eta Aldebikotasuna ditu euskarri Kontzertu Ekonomikoak, gure Autogobernuaren giltzarri gisa.

Nire ustez, Itunak, Legezkotasunak, Elkartasunak eta Aldebikotasunak aukera ematen digute “Akordio / Itun” berri bat zertzeko Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanei begira.

Nire saioaren azken zatian itzuliko naiz gai honetara.

HONAINO GURE EREDUA AURKEZTU DUT.

Orain, Eusko Jaurlaritzak lehen hamar hilabete hauetan egindakoei ekingo diet.

Erreferentzia gisa, eta dena aipatzeko asmorik gabe, ekimenik azpimarragarrienak aipatuko ditut:

Suspertze Ekonomikoa eta Enplegua.

Azpimarratzekoa da 2020 Esparru Programa berriaren onarpena: 8.800 milioi euroko eduki-kopurua du eta helburutzat hartu du langabezia-tasa % 10etik behera jartzea.

Martxan daude Ekintzailetzarako Erakundearteko Plana eta Industrializazio-plana, 1.225 milioi euroko inbertsioarekin.

Agerikoa da industriaren suspertzea, hala produkzio-indizearen bilakaerarengatik, nola eskaera-zorroaren eta esportazioen hazkundearengatik.

Martxan ditugu ekonomia errealari laguntzeko neurri guztiak.

84 milioiko inbertsioa egin dugu Indartu programan, eskualde behartsuetan enpresa-inbertsioa bultzatu eta haien suspertzeari laguntzeko; eta Gauzatu eta Luzaro programetan, enpresa txiki eta ertainei laguntzeko.

Lehen sektorean, laguntzak onartu ditugu lankidetza-, eraldatze- eta merkaturatze-proiektuetarako, bai eta landa-inguruetan enplegua sustatzeko ere.

Lortu dugu Euskadik EIT Food nazioarteko partzuergoaren egoitzetako bat hartzea.

Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzak ere azpimarratu nahi ditut, eta dendak modernizatzeko laguntza-programak.

Enpleguarekin lotura zuzenean, 100 milioi euro bideratu ditugu langabezian dauden pertsonen prestakuntza-programetara; desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzera, laneratzeko enpresetara eta gazteen enplegura.

Enplegu Publikoan, 4.375 plaza berri onartu ditugu, lan-eskaintza publikoen bitartez deituak, Osasun, Hezkuntza eta Segurtasun zerbitzuak hobetzeko.

Lan-ikuskaritzako plana abiarazi dugu, eta konpromiso hau hartu: sinatutako lanaldi partzialeko kontratuak aztertzea.

Enpleguaren kalitatean aurrera egitea du funtsezko helburutzat Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak, legegintzaldi honetako lehenengo bilera egin baitu.

Nazioartekotzean eta Berrikuntzan:

SPRI bulego berria ireki dugu Londresen eta Brexit Batzordea abiarazi, gainerako erakunde eta eragile ekonomikoekin elkarlanean.

Zibersegurtasun Zentroa martxan jartzen ari gara, eta errealitate operatibo bihurtuko da datorren urtean.

Espainiako Gobernuarekin adostu dugu ESS Bilbaok parte hartzea Ikerketa Azpiegituren Europako Partzuergoan.

164 milioi euro jarri ditugu RIS 3 espezializazio adimenduneko programetan.

Azpiegituretan, Bilboko Metroaren 3garren linea martxan jarri da.

Espainiako Gobernuarekin Abiadura handiko trenaren obrei buru emateko nola hiriburuetarako sarbideak zehazteko akordioak sinatu ditugu.

Ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa berritu dugu.

Uholdeen aurkako obra nagusien artean, amaituta daude Gobela ibaikoak eta Ibaizabaleko lehenengo fasea; bigarren faseari ekingo zaio Basauri eta Galdakao artean. Urumea ibaiko obrak ere amaitu dira eta bigarren faseari ekin zaio Martutenen; bai eta Kadagua ibaia bideratzeari ere.

Mundakako itsasadarreko obrak egiten ari dira eta bukatuta dago Oiongo araztegia.

Azpiegitura hidraulikoak egiteko esparru-akordio bat sinatu dugu Arabako Foru Aldundiarekin, 74 milioi euroko inbertsioa dakarrena.

Gizarte Politikak hartzen dituen konpromisoan, hauek azpimarratuko ditut:

Osasun Zerbitzuan, Arabako Unibertsitate Ospitalea zabaltzeko obren hasiera eta Basurtuko Ospitaleko gune berria, 65 milioiko inbertsioarekin.

Zerbitzu berriak ireki ditugu Urdulizko Ospitalean, bai eta Kanpezuko eta Amurrioko osasun-zentroak ere.

BioAraba osasun-ikerketa institutua sortu dugu, bai eta Ama-esnearen Euskal Bankua abiarazi ere.

Hezkuntzan, 254 milioi inbertitu ditugu azpiegiturak hobetzeko Beasainen, Aieten, Lekeition edo Agurainen.

Zientzia-azpiegitura berriak ireki ditugu Gasteizen eta Leioan.

“Unibertsitatea - Enpresa 2020 Agenda” adostu dugu, helburu hauekin: ezagutza transferitzea, giza-kapitala prestatzea eta ikasleen laneratzea bultzatzea.

11 espezializazio-programa berri jarri ditugu martxan Lanbide Heziketan.

176 milioi euro bideratu dugu eskolatze-beketara; unibertsitate-hezkuntzara; berrikuntza eta etengabeko prestakuntzarako programetara edota zerbitzuetara.

Hezkuntza publikoaren aldeko apustua lehentasuna da. Parte hartzeko prozesu bat abiarazi dugu Hezkuntza Akordio berria erdiesteko. Ekitatearen eta bikaintasunaren aldeko apustua egin dugu.

Gizarte Laguntzak. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko oinarrien proposamena aurkeztu dugu.

Jaurlaritzak eutsi egiten dio urtero 14 milioi jartzeari gizarte-zerbitzuen zorroa martxan jartzeko, Finantza Publikoen Kontseiluak sortu baitzuen.

95 milioi euro bideratu ditugu Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzera; gizarte-larrialdiko egoerei arreta egitera; seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara; lana eta familia bateragarri egiteko laguntzetara; berdintasun-programetara eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzekoetara.

Lankidetza. 40 milioi euroko laguntzak onartu ditugu eta IVgarren Plan Zuzentzailea onartzeko prozesua martxan da, garapenerako lankidetzarako politikak berritzeko helburuarekin.

Berdintasuna. Martxan da Berdintasun Plana eta lehentasuntzat dugu aurre egitea edozein motatako sexu-erasori. Berdintasuna dugu konpromiso partekatua.

Segurtasuna. Oso garrantzizkoa izan da Espainiako Gobernuarekin erdietsitako akordioa, Segurtasun Batzordearen barruan: Ertzaintzaren plantilla finkatu da, 8.000 ertzainez osatua, eta belaunaldi-berrikuntza ahalbidetu da. Aldebiko akordio horri esker, 300 plaza berrirako deialdia egin ahal izan da, eta beste 300erako deialdia egingo da urtea amaitu baino lehen.

Segurtasun Batzordearekiko akordioak erraztu egiten du Ertzaintza Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroan sartzea eta Europako datu-baseetara iristea. SIRENEren seinalamendu-informazio osorako irispidea negoziatzen ari gara, bai eta Europol Unitatearekin zerikusia duenera ere.

Justizia. 14 milioi euroko laguntzak onartu ditugu egoera bereziki ahulean dauden pertsonek justiziarako doako irispidea izan dezaten.

Justizia konpontzaile eta arreta-zerbitzuari dagokionez, gure helburua da biktima jartzea prozesu penalaren protagonista gisa, haren eskubide guztien egikaritza eta betetzea bermatze aldera.

Kultura eta Euskara, hizkuntza-politikan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu dugu Nafarroarekin eta Iparralderekin. Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko konpromisoa partekatzen dugu.

22 milioi euroko inbertsioa onartu dugu Euskadin kultura sortzeko laguntzetarako.

Indartu egin dugu sormen- eta kultura-industrien aldeko apustua, gure Herriaren hazkundearen ardatz diren aldetik, hala barne ikuspegitik nola nazioartekotik.

Etxebizitza-politikan 66 milioi euro inbertitu ditugu. Bultzada handia eman zaio neurrizko prezioen alokairuaren eskaintza publikoari, bai etxebizitza berriak sustatuz, bai pribatuak ekarriz Bizigune Programaren bitartez. Eraikinen birgaikuntza eta hiri-berritze eta -berroneratzea bultzatu ditugu, Renove programen bitartez.

Lanean ari gara etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eta eraikinen ikuskaritza teknikoaren erregelamenduak, arauak, aurten bertan sar daitezen indarrean.

Gobernantza Publikoan, Tokiko Politika Publikoen Kontseilua eratu dugu.

Akordioa lortu dugu Espainiako Gobernuarekin, errekurtsorik-helegiterik aurkez ez diezaion Legebiltzar honek onartutako Toki Erakundeen Legeari.

Era berean, zazpi urteren buruan, akordioa lortu dugu Espainiako Gobernuarekin, gure esku eduki ahal izateko informazio hau: Gizarte Segurantzako kontingentzia arruntengatiko eta lanbide-heziketako kuoten hobarien finantzaketa.

Amaitzeko, hemen, Gasteizen, hiriburutza-hitzarmena sinatu dugu Gorka Urtaran alkatearekin: 40 milioiko inbertsioa egiteko konpromisoa hartuz.

Estos son los principales hechos del Gobierno en diez meses de legislatura. Somos un Gobierno de acción.

Como resumen, las bases del Programa y la Planificación Estratégica están en marcha. El Programa legislativo se está cumpliendo por encima de las previsiones.

Los programas y medidas de apoyo puestos en marcha superan los 1.000 millones de euros.

Los acuerdos con el Gobierno español, en la Comisión Mixta del Concierto y la Junta de Seguridad, han supuesto un reconocimiento de la singularidad de nuestro Autogobierno y la bilateralidad.

He presentado el Modelo de Desarrollo Humano Sostenible. He resumido los principales hechos del Gobierno.

Me refiero ahora a nuestras Prioridades, la respuesta a los retos globales que planteé en el Debate de Investidura.

Prioridad uno: Educación:

Hemos puesto en marcha un proceso de reflexión participada para alcanzar un Acuerdo que estructure y refuerce la estabilidad y calidad de la Educación, asegurando la equidad y avanzando hacia la excelencia.

Impulsamos políticas que integran la calidad. Apostamos por la cultura de la evaluación, innovación e investigación. Primamos la formación de la comunidad educadora.

Avanzamos en el Plan de mejora con la extensión del plurilingüismo o la educación integral con el euskera como eje central vehicular. Hemos reforzado nuestro modelo de Formación Profesional Dual en relación con la empresa y lo hemos extendido a la Universidad.

Reconozco los problemas. Hemos avanzado en la equidad, tenemos que mejorar en excelencia. Nuestro reto es obtener unos resultados acordes al esfuerzo económico que realizamos.

Dos: Reto demográfico y apuesta por la juventud:

Hemos aprobado la nueva política de vivienda y el Programa de empleo juvenil.

Hemos ampliado el apoyo a la familia y la natalidad, los programas de conciliación, la educación de cero a tres años o la atención a las personas mayores. Hemos definido la política de integración de la inmigración, trabajando con las Diputaciones Forales, EUDEL y el Tercer sector.

Procedemos a la renovación y rejuvenecimiento de plantillas en la Administración pública.

Reconozco los problemas: tenemos mucho que avanzar en todas las medidas contempladas en el Plan Estratégico de Infancia y Familia.

Tres: Innovación y digitalización:

Hemos adoptado la estrategia de especialización inteligente RIS 3.

Hemos aprobado el Plan de industrialización, también el programa de atracción de inversiones y de innovación.

Destaco la ampliación del Parque Tecnológico de Bizkaia en la margen izquierda.

Reconozco los problemas: tenemos que avanzar en el apoyo a la economía real, especialmente las pequeñas y medianas empresas, en el apoyo a la innovación, internacionalización e inversión.

Tenemos que trasladar el crecimiento a una mayor generación de empleo de calidad; reducir la precariedad laboral, muy especialmente entre la juventud, mujeres o personas trabajadoras incorporadas tras la Reforma laboral.

Prioridad cuatro: Internacionalización de Euskadi – Basque Country:

Impulsamos la promoción de Euskadi como atractivo turístico y cultural.

Estamos actualizando la "Estrategia Euskadi Basque Country 2020" que presentaremos a principios de año, con estas siete prioridades:

- -Eurroregión Aquitania-Euskadi. Un proyecto que crece con la incorporación de Navarra y la Nueva Aquitania, así como la creación de la primera institución territorial en Iparralde.
- -"Visión vasca sobre el futuro de la Unión Europea". Documento comprometido en el encuentro de trabajo mantenido con el Presidente Jean Claude Juncker y que entronca con el objetivo de una "Europa más social y democrática".
- -Presencia propia de Euskadi en 76 países del mundo.
- -Red de 6 socios estratégicos en los territorios de oportunidad futura para Euskadi.
- -Participación en 75 redes internacionales.
- -Red social Basque Global Network con el objetivo de proyectar Euskadi en el mundo, reforzando la participación de las Euskal Etxeak.
- -"Agenda Basque Country 2030" de implementación de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas en Euskadi.

Reconozco los problemas: ganar dimensión en el exterior exige mayor coordinación. Internamente, aunando esfuerzos de Acción Exterior, SPRI, Basquetour o Instituto Etxepare. Institucionalmente, en el Consorcio de internacionalización con los agentes económicos, empresas, Universidades, Centros tecnológicos, Cámaras de Comercio e instituciones públicas.

Un País pequeño necesita más trabajo compartido, más "auzolana", para crecer en el escenario global.

Educación. Rejuvenecimiento. Digitalización. Internacionalización.

Este es el motor de una Euskadi que quiere crecer.

Hemos superado la fase más dura de crisis y recesión. Desde marzo de 2013 Euskadi crece y crea empleo de forma paulatina. Son 53 meses con dientes de sierra pero en tendencia positiva.

Mantenemos la previsión de crecimiento para este año en el entorno del 3%.

La creación de empleo avanza y en el segundo trimestre el empleo, en términos de puestos de trabajo equivalentes, ha aumentado un 2,2%.

La tasa de paro se sitúa en el 11%, tres puntos menos que el año anterior.

Vamos por el buen camino, sí. Pero no nos conformamos.

Nos corresponde mantener este rumbo, garantizar un escenario de estabilidad y certidumbre. Concentrar el esfuerzo y colaborar.

Tenemos la oportunidad de dar un nuevo impulso a la economía vasca y recuperar todos los empleos perdidos durante la crisis.

Esta es la prioridad del País y esta es la prioridad del Gobierno. Más y mejor empleo.

Honaino gure Programa egituratzen duten lehen bi zutabeen errepasoa:

-Giza garapena eta integrazio soziala; eta

-Enplegua eta Suspertze Ekonomikoa.

Hirugarren zutabearen ikuspegiari helduko diot orain:

-Bizikidetza eta Giza Eskubideak.

Ondoren, Autogobernuaren etorkizunari buruzko ikuspegi politikoarekin emango diot amaiera.

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Euskadin, zerbait hamarkadaren ostean, indarkeriaz eta terrorismoz betetako garai ilun eta traumatiko batetik atera berri gara. Sufrimenduak eta bidegabekeriak utzitako zauri ugari dago, oraindik sendatu ez direnak.

Bestetik, mundu globalizatuan XXIgarren mendeko arazoen agenda berria sortu da: errefuxiatuen egoera, migrazioak, erlijio eta kultur aniztasuna, bazterkeria eta injustizia forma berriak, nazioarteko terrorismoa edo gerrak.

Gai horiek garatzen ditu Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2020 Plan Estrategiko berriak.

Gure estrategiaren norabideari eutsi nahi diogu, aurreko Bake eta Bizikidetza Plana tresna oso baliagarria izan delako.

Bakea ezagutzen ari den belaunaldia gara, eta geroko bizikidetza segurtatzea da gure lana.

Bizikidetzarako proiektuak honako aurrekari hauek ditu:

-Eusko Jaurlaritzaren izenean, biktimen arloko autokritikaren adierazpena.

-Biktimei aitorpena egiteko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldiak: otsailaren 20an, polizia-gehiegikeriaren biktimen alde; martxoaren 11n, terrorismoaren biktimen alde; eta

maiatzaren 14an, frankismoaren biktimen alde. Ekitaldi horietan, lehenengo aldiz, Legebiltzarreko talde guztiek hartu dute parte.

